



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

## **2019KO IRAILAREN 19AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

Igor Zapirain Lizarribar  
Nagore Zubillaga Garmendia  
Luis Muñagorri Lasa

### **Batzordekide ez diren zinegotziak:**

Juan Luis Cid Conde  
Rodrigo Vilar Aranda

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

**Kontuhartzailea:** Lierni Muñoa Salaverria

Ibarran 2019ko irailaren 19an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak ohiko bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Igor Zapirain Lizarribar alkatea izan zen eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

## **LEHENA:**

### **1.- AURREKO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKTAREN ONARPENA**

#### **1.1 2019KO UZTAILAREN 19KO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKTAREN ONARPENA**

2019ko uztailaren 19an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2019ko uztailaren 19an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

## **2.- IBARRAKO EUSKAL HERRIA 45-47 INGURUKO PLAZARAKO HAUR PARKEAREN HORNIDURA ETA MUNTAIAREN KONTRATUA ESLEITZEA**

2018KAPI0005 espediente bidez izapidetu da Ibarra Euskal Herria 45-47 inguruko plazarako haur parkearen hornidura eta muntaia kontratuaren lizitazioa.

2019ko irailaren 11an, kontratazio mahaiak Lurkoi enpresaren aldeko esleipena egitea proposatzen du, kontutan izanik aurkezturiko enpresetatik eskaintza hoberena aurkeztu duten enpresa dela.

Guztia aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Onartzea Ibarra Euskal Herria 45-47 inguruko plazarako haur parkearen hornidura eta muntaia kontratua LURKOI APLICACIONES TÉCNICAS DE LA MADERA S.L enpresari esleitzea, 30.393,17 eurotako kopuruan (BEZa gabe).

**BIGARRENGOA:** Kontratu hau, 1.06.153.20.601.03 (274) partidatik finantziatuko da.

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki honen berri eman Bricantel España S.L eta Lurkoi Aplicaciones Tecnicas de la madera S.L enpresei.

## **3.- IBARRAN ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN KONTRATUA ESLEITZEA**

2019KPI0002 espediente bidez izapidetu da Ibarra etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren kontratuaren lizitazioa.

2019ko irailaren 11an, kontratazio mahaiak ILARKI elkartearen aldeko esleipena egitea proposatzen du, kontutan izanik aurkezturiko eskaintza hoberena eta bakarra dela.

Guztia aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Onartzea Ibarra etxez-etxeko laguntza kontratua ILARKI elkarteri enpresari esleitzea, astelehenetik ostiralera 19,17 euro/orduko (BEZ gabe) eta 23,16 euro/orduko (BEZ gabe) jai egun eta astebukaeretan.

**BIGARRENGOA:** Kontratu hau, 1 07.231.10.227.04 (209) partidatik finantziatuko da.



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki honen berri eman ILARKI elkarteari.

2019WKPI0002 espedientearen baitan, Gizarte Zerbitzu departamentutik, Ibarra etxez-etxe laguntza zerbitzua egiteko prozedura ireki bidezko plegu administratibo eta teknikoak aurkezten dira (kontutan izanik kontratua 2019ko irailaren 30ean amaitzen dela).

Aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Onartzea 2019WKPI0002 espedientearen barneratzen diren Ibarra herrian etxez-etxe laguntza zerbitzua, prozedura ireki bidez, esleipena egiteko baldintza plegu administratibo eta teknikoak.

#### **4.- IBARRAN ARGITERIA PUBLIKOAREN HORNIDURA KONTRATUA ESLEITZEA**

2019KPI0003 espediente bidez izapidetu da Ibarra argiteria publikoaren hornidura kontratuaren lizitazioa.

2019ko irailaren 11an, kontratazio mahaiak Leycolan S.A.L enpresaren aldeko esleipena egitea proposatzen du, kontutan izanik aurkezturiko eskaintza hobereena eta bakarra dela.

Guztia aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Onartzea Ibarra argiteria publikoaren hornidura kontratua LEYCOLAN S.A.L enpresari esleitzea, 42.806,95 eurotako kopuruan (BEZa gabe).

**BIGARRENGOA:** Kontratu hau, 1.08.165.00.623.02 2019 (281) partidatik finantziatuko da.

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki honen berri eman Leycolan S.A.L enpresari.

#### **5.- ETXEBIZITZAREN ERROLDAN ETXEBIZITZA BATEN INSKRIPZIOAREN ALDAKETA ONARTZEA**



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

2019ko ekainaren 6an, Rogelia Gonzalez Diaz andreak erreklamazio bat aurkezten du Ibarako Udalean adieraziz etxebizitza hutsari dagokion erreklargua ordainarazten zaiola eta bere etxebizitzak udal erregistroak duen erregistroa aldatzeko eskatzen du (3 etxebizitza izatetik bakarra dagoela adieraziz).

2019KPOL0099 espediente bidez egoeraren azterketa burutu da.

Ikusi dira kontuhartzaileak eta idazkariak egindako aldeko txostenak.

Guztia aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Onartzea 2019WKPOL0099 espedientean baitan Rogelia Gonzalez Diaz andreak egindako eskaera; Julian Gayarre 17 etxebizitza, etxebizitza bakar bezala erregistratzea udal etxebizitza erregistroan.

**BIGARRENGOA:** Erabaki honen berri eman, idazkaritzako administrariak etxebizitza erroldan aldaketa egin dean

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki hau jakinarazi interesatuari eta kontuhartzaitza departamentuari.

### **6.- DATU BABESERAKO AGENTZIAN DEKLARATURIKO FITXATEGIA SUNTSITZEA**

Idazkariak jakinarazten du, Global Factory (datu babeserako delegatuak) adierazi duela jada Datuak Babesteko Euska Bulegoan deklaturik zeuden artxiboak zahazkituak gelditu direla. Erregistro hori, egun ez dago indarrean eta ondorioz Ibarako udalak horren inguruan duen dokumentazioa suntsitu egin behar dela.

Idazkariak jakinarazten du dokumentazio guzti hori suntsitzeko agindua emango duela.

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamarrak hamar gutxi direnean eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut

Ibarako Udaleko idazkaria

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave



**IBARRAKO UDALA**  
GIPUZKOA - EUSKAL HERRIA

Ibarran 2019ko an irailaren 23an